

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5205

331/2024 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea kargutik kentzeko dena.

Uztailaren 30eko 185/2024 Dekretuaren bidez, José Enrique Corchón Alvarez jauna Finantza eta Aurrekontu sailburuorde izendatu zen. Hala ere, pertsona hori titularra zen organoa Finantza Politikako eta Aurrekontuetako Sailburuordetza izatera igaro da, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen urriaren 29ko 3013/2024 Dekretuaren ondorioz. Hori dela eta, egoera berrira egokitzeko, beharrezkoa da Jose Enrique Corchón Alvarez jauna desagertutako kargutik kentzea eta, ondoren, egungo karguan izendatzea.

Horrela, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 12an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— José Enrique Corchón Alvarez jauna Finantza eta Aurrekontuetako sailburuorde kargutik kentzea, betetzen duen karguaren izena aldatu egin baita.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko azaroaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.